




TXOKO

KUTTUNAK

T U R I S M O G I D A

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

[2022/04]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA



Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmenta ohiko ordutegia

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00. Larunbata: 10:00-13:00.

Aste Santuetako ordutegi berezia

Apirilak 11,12,13 eta 19,20,21,22: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00.

Apirilak 16 eta 23 (larunbata): 10:00-13:00.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik
%10eko deskontua
kupoi hau aurkeztuz



FABRIKAKO PREZIOETAN

50€tik gorako erosketetan
%10eko deskontua egingo da
apirilean zehar.



ETXERA BIDALIKO DIZUGU

Ondorengo kupoia sartu online
erosketa egitean: HITZAKIDE
(ekainak 15 arte erabilgarria)

Aurkibidea

YURRITA (Mutriku)	2
BERRIATUA	4
MARKINA-XEMEIN	5
ETXEBARRIA	6
ZIORTZA-BOLIBAR	7
MUNITIBAR	8
LEA IBARRA	9
AULESTI	10
LEAKTIBAI (Mendexa)	11
ABENTURA PARK (Mendexa)	12
ISPASTER	13
LEKEITIO	14
MUTRIKU	15
ONDARROA	16-17
FORUA	18
KAMIÑOKO (Murjeta)	19
URDAIBAI EXPERIENCE	19
MURUETA	20
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	21
GAUTEGIZ ARTEAGA	22
EKOBIDEAK (Leioa)	23
AMUNATEGI (Busturia)	23
NABARNIZ	24
HEMINGWAY HOUSE (Sukarrieta)	25
AJANGIZ	26
OGOÑOPE (Ibarrangelu)	27
ARROLAGUNE (Arratzu)	27
ARRATZU	28
NÖVEREK (Gernika-Lumo)	29
BASONDO (Kortezubi)	30
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	31
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	31
UR URDAIBAI	32



Elkarrekin loratzen

Negua atzean utzi dugun honetan, udaberriz koloreztatuta ageri dira inguratzen gaituzten bazterrak. Loratzen hasita dago natura, brisak lurrin gozoak barreiatzen dituen egunetan. Berde daude zelaiak, zuhaitzei aterpea ematen hostoak, urdin itsasoa... Ezagutzen ez ditugun parajeak ezagutzeko egun aproposak ditugu aurretik edota ezagutzen ditugunetara itzultzekoak.

Txoko ikusgarrien lurraldea aurkituko duzu Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdean, egunerokotasunetik aldentuz abentura berrietan murgiltzeko eskaintza zabala. Euskal giroan gastronomia eta kultur zein kirol jarduera anitzez gozatzeko parada...

Zain gaituzu, elkarrekin loratzen jarraitzeko.

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak

Lege gordailua: BI-2906-03 • ISSN: 2173-7118

Helbidea: Arretxinaga Etorbidea, 1 • MARKINA-XEMEIN • 94-684 44 36

Webguneak: www.busturialdea.hitza.eus • www.lea-artibaiketamutriku.hitza.eus

Testuak eta publizitatea: LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA

Berriatua



Mendibarren frontoia

Zesta-punta maite du, zestari esker da gaur egun dena eta etorkizunean izango dena. Mendibarren frontoian hazi da kirolari bezala, bertan hezi da eta bertan egi bihurtu du profesionaletara heltzeko desioa. Ameriketako ametsari agur esan ondoren, iluntzeetako planik onena frontoian aurkitzen du, umetan bezala.

Ibon Aldazabal 8 urterekin hasi zen frontoirajoa-ten. Bizilekua herriko plazan izanda, 50 metro eskasera zeukan pilotalekua. Bera jaio baino urtebete arinago eraiki zuten Mendibarren, 1986an. «Berriatua erraztasun guztiak eduki ditugu zestaz aritzeko, frontoia bera eta zesta-punta eskola bat duen herria izanik, dena dago bideratuta zestaz etorkizun bat izateko», azaldu du.

Felix Espilla zestalari handiaren loba da Aldazabal, eta bai berak eta bai bere anai Aimar Aldazabalek etxetik jaso dute zesta-puntarekiko maitasuna eta zaletasuna. Eta harrez gero, zestaz etorkizuna izateko helburuagaz, orduak eta orduak igaro dituzte kantxan.

Balio erantsia ikuskizunari

Mendibarren frontoi berezia da. Ez da beste asko bezain luzea. 54 metro beharrean, 47 ditu, eta horrek balio erantsia ematen dio ikuskizunari, are mugimendu bizkorragoak eskatzen baititu.



Ibon Aldazabal
[Puntista]

«Berriatuaren arima frontoia da»

Beste herri batzuetan gertatzen den bezala, frontoia herritarren bilgunea ere bada. Taberna bat dauka, eta kantxa antzerki, herri bazkari zein jaialdien agertoki izaten da egun berezietan. Egun euri-suetan aterpea ere bai. Eta zesta-eskolari esker, ia egunero gozatu daiteke munduko ikuskizun handienarekin: «Ameriketatik bueltan, etorkizunera begirako lanketa hori oso eskertzekoa da».



BERRIATUKO UDALA

Herriko plaza, 1
94-613 70 30
faxa: 94-613 70 27
udala@berriatua.org
www.berriatua.org

Markina-Xemein



Earratiz Ibaibarriaga Etxaburu

Alde zaharrean hazi zen Yolanda Larreategi idazle markina-xemeindarra. Zear Kalean gozo denda izan zuen bere birraitonak, kale bereko 1. zenbakian amonak zeukan dendako salmahaiaren atzean egoten zen umetan, Kale Okerrean gora eta behera ibitzen zen lagunekin, han zeukaten-eta beste aitona-amonak taberna. 3 urtetik gurasoen etxea utzi arte, Zear Kalea 13an bizi izan zen eta senarrak taberna bat izan zuen Guen Kalean. «Erdiko Kalearekin izan ezik, gainerako guztiekin daukat lotura zuzena», azaldu du.

Markina-Xemeingo alde zaharrak ondare oso garrantzitsua biltzen du, kaleek Erdi Aroko planifikazioa dute egiturari, eta hiru kale paralelok (Guen Kalea, Erdiko Kalea eta Okerra) eta zeharkako batek (Zear Kalea) osatzen dute.

Andonegi jauregi barrokoa da altxorretako bat. Zear Kalea 11. zenbakian dago. Fatxadari harlandua, balkoietako forjaketa bikaina eta teilatu hegalaen tailuak azpimarratu daitezke. Larreategiaren umetako etxearen ondoan dago Andonegi: «Gurasoen etxeak XVI. mendeko harlandua du, eta goiko alde, sute bat tarteko, berriagoa. Kale horretan zutik dauden etxeen artean zaharrena da».

Kontzejupea

Aurrekaldean, Kontzejupea aurki daiteke, udaltxe zaharra. Oiz mendiko hareharriz eginiko barroko erako zortzi zutabek eusten dute bost mende udaltxea hartu zuen eraikin ederra. Erloju-



Yolanda Larreategi
(Idazlea)

«Alde zaharrak bizitza ematen du»

dorre bat dauka atxikituta, eta orduak eta ordu erdiak ematen dituzte kanpaiek, egunez eta gauez.

Kale estuen eta karkaben gordelekua da alde zaharra. Karkaben ateak Jose Pablo Arriaga artistaren anaia Henrike Arriagak eta Alvaro Casillasek egindakoak dira. Herriko lekuri lehengoena eta zainduena ere bada: «Kaleak oso garbiak dira, denetarik dauka, komertzio ederra, tabernak, terrazak, lasai egoteko eta herriko bizitza bizitzeko lekua. Bizitza ematen dio herriari eta bizitza ematen die berton daudenei».



**MARKINA-XEMEINGO
UDALA**

www.markinaxemeinturismoa.com

Etxebarria

Bidegorria



Yolanda Arrieta
[Idazlea]

«Denborarik gabeko lurralde batean zehar noala imajinatzen dut»

Etxebarrian leku eder asko daude, baina momentu honetan bidegorria du gogokoen Yolanda Arrieta idazleak. Beti, denak, errepide nagusitik funtzionatzen duela ematen badu ere, beste bide batzuk ere badaudela dio, eta beste bide batzuetatik joaten zarenean gauzak eta erreallitatea bera ere, beste modu baten ikusten dira.

Lehenako andabidea aintzat hartuta eraiki zuten Etxebarritik Markina-Xemeinerako bidegorria. Bi kilometro inguru ditu. Urko ibaiaren bideari jarraitzen dio ibilbidearen zati handian, errota, bur-

dinola, dorretxe zahar eta Munibe jauregiaren ondok igarota. Antsotegi hoteletik Markina-Xemeinerainoko bidea da bereziena Arrietarentzat. Arbolak eta erreka lagun dira tarte horretan, eta bertan urte pila daramaten naturaren elementu horiekin bat egin eta aspaldiko etxebarritarren senide hurbileko sentitzen da.

Asteburuetan, eguraldi ona dagoenean, amarekin joaten da bidegorritik Markina-Xemeinera. Gustura joaten dira kontu kontari, bateko arbolak, besteko hostoak eta besteko, baserria, bideak, zu-
biak... Arrietarentzat momentu batez beste erritmo batean ibiltzeko aukera ematen duen lekua da, beste modu batera, lehenakoarekin bat eginda eta denborarik gabeko lurralde batean zehar doazela imajinatuz.

Baina, aldi berean, bidea mugimendua da, aurre-
ra eramaten zaituena oraina biziz, bihotzaren taupadan, taup-taup eta tipi-tapa, pausoz pauso, geroa irudikatzen eramaten du.



**ETXEBARRIA
UDALA**

Peñanekua Plaza, 1
94-616 64 32/94-616 74 09
faxa: 94-6167477
udala.etxebarria@bizkaia.org
www.etxebarria.biz

Ziortza-Bolibar

Kolegiata



Mikel Reina Barros

Eddy Solozabalaren bizitza Ziortza-Bolibarri oso lotuta dago, ia jaio aurretik. Berezik kolegiatarekin harreman oso estua eta zuzena dauka. Kondairak dio 968ko Jasokunde egunean, bertoko fededunak Gerrikako Santa Luzia elizan zeudela. Meza entzuten zeudela, arrano batek eliza horretako hilobi batetik garezur bat hartu zuen, atzaparretan eraman zuen, eta Ziortzako kokagunearen gainean askatu zuen, eta bertan eraiki zen eliza. Ziortza-Bolibarkoa Bizkaian inoiz egon den kolegiata bakarra da. Kondaira ez da hutsean geratu, Ziortza-Bolibarren armarrarian arranoa ageri da, garezurra atzaparretan duela. Horregatik, Solozabalaren ustez, «herriaren sorreraren abiapuntu nagusia dela esan daiteke».

Solzabal ez bakarrik, kolegiatak hasiera-hasieratik harrapatu zuen haren familia ere: «Nire bizitzarekin oso lotuta dagoen toki bat da, bertan ezkondu ziren lehendabizi nire gurasoak, eta, gero, nire arrebak bertan osatu zuen bataioa, eta ez berak bakarrik, nire ilobek ere bai. Horregatik guztiagatik leku benetan berezia da niretzat». Hainbeste une gogoangarri bizi izan dituen gaur egungo eliza XIV. mendean eraiki zuten, eta estilo gotikoa du. Horrez gain, bere barnean Bizkaiko organo zaharretariko bat gordetzen du.



Eddy Solozabal
(Arraunlari ohia)

**«Nire bizitzarekin
oso lotuta dagoen
tokia da kolegiata»**

Antzinako erromesen ospitale zaharra berreraiki egin da azken urteotan, eta ibiltarientzako ostatu modura egokitu dute.



**ZIORTZA-
BOLIBARKO
UDALA**

Domingo Ugartetxea, 3
94-616 57 27
faxa: 94-616 40 16
udala@ziortza-bolibar.com
www.ziortza-bolibar.eus

Munitibar

Oiz mendia, errota harrien harrobia



Ube
[Artista]

**«Munduan ez dago
beste lekurik
horrenbeste
errota harri daukanik»**

Bost menditatik egiten zen Bizkaiko Batzar Nagusietarako deia, tartean, Oiztik. Sinbologia handiko mendia da, beraz, eta herriko txorik gustukoena Jose Angel Uberuaga artista munitibartarrarentzat. Hango errota harrien aberastasuna nabarmentzen du berak, herriaren historiaren parte direlako.

Oizen alde bietan daude errota harriak, nola hegoaldean, Berriz aldera ematen duena, hala iparraldean, Munitibar aldera; han gehiago hemen baino. Izan ere, bere ezaugarriengatik —%50eko malda dauka—, harria ateratzeko zailagoa da Lea-

Artibai eskualdera ematen duen eremua. Uberuagak eta Javier Castro Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografia ataleko kideak bost harrobi identifikatu zituzten bertoko landa-azterketan, euretako bat 45 errota harrirekin. «Munduan ez dago beste lekurik horrenbeste errota harri daukanik», esan du Uberuagak.

Hitzegiten duten harriak

Mendian hainbat lanbide egon dira denbora luzez, eta bakoitzak arrastoa utzi du. Harginen lan egiteko era imajinatzea gustuko du Uberuagak, zelan lantzen zuten harria lekuan bertan, inguruko baldintzetara moldatuta eta harriaren aukerak ondo aztertuta, bizimodu eta estilo baten isla.

Oiz inguruok esanahi handia daukate Munitibarko autorearentzat, errota harriok funtzio garrantzitsua betetzen baitzuten, errota martxan egoteko ezinbestekoak izatean. «Geure historia ezagutzeko balio dute; nondik gatozen», dio.



**MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA**

Herriko Plaza, 6,
94-616 40 07

administrazioa@munitibar.org
www.munitibar.org



Au
les
ti

Gi
za
bu
ru
a
ga

A
mo
to

Leatarren
Eguna
2022

Mendexan,
maiatzaren 21ean

Mendexa

Munitibar

Elexalde, 1 • 48289 GIZABURUAGA
Tf./faxa: 94-684 29 82 • leaibarra@bizkaia.org



LEA IBARRA UDAL
MANKOMUNAZGOA

Aulesti

Santa Eufemiko zelaia eta ermita



Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu



Kattin Uriarte
(Puntista ohia)

«Santa Eufemik xarma berezia dauka»

Umetako oroitzapenak, bakarrik, familian zein lagunartean bizi izandako momentuak, paisaia ikusgarriak, amaigabeko zerumugarekin, natura bete-betean... Hori eta gehiago eskaintzen du Santa Eufemik, eta horregatik du txokorik gustukoena Kattin Uriarte puntista ohi aulestiarrek.

50eko hamarkadara arte erromesen eta eskaleen bilgune zena, egun, aisialdiarekin eta jaiekin lotuta dago. Uriartek dioenez, aulestiarrentzat «beste gauza bat» da, xarma berezia duen tokia. Irailaren 16an da Santa Eufemi eguna, eta egunean bertan eta ondorengo igandean, jendez betetzen dira San-

ta Eufemiko zelai eta ermita inguruak. Sasoi bateko oinez joateko tradizioa atzean utzita, autoz joan daiteke bertara. Lekoztik gora hartuta, bost minutu eskas behar dira zelaira heltzeko. Bolatokia eta Atxagarai aterpetxea daude bertan. Aterpetxea «abentura ederrak» bizitzeko toki ezin hobea dela dio Uriartek. Mahaiak eta aulkiak eta sua egiteko guneak ere badaude zelaian, janaria prestatzeko. «Zaindutako ingurua da, eta prestatuta dago bazkari-meriendak bertan egiteko. Egun pasa joateko leku aproposa da».

222 eskailera ermitaraino

Santa Eufemiko ermita Urregarai mendiaren tontorrean dago, 704 metroko altueran. Hara heltzeko, naturan bertan harrian egindako 222 eskailera igo behar dira. Eguraldi onarekin, eremu zabala hartzen du zerumugak: Oiz eta Bedartzandi mendiak, itsasoa Lekeitio parean, Markina-Xemein eta Etxebarria inguruak. «Paisaiak ikusgarriak dira».



**AULESTIKO
UDALA**

Donibane plaza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus

TURISMO AKTIBOA

ABENTURA-KIROLA

LEA-ARTIBAI



LEAKTIBAIK, eskualdean eta Karraspion (Mendexan) aukera zabalak eskaintzen ditu entretenimendu jasangarriako. Aukeratu adin eta maila desberdinetarako prestatuta ditugun ekintzen artean. Zatoz paisaia ikargarriez gozatzerako, lagunekin, bikotekidearekin edo familian.



Instagram

@Leaktibai



Facebook

@Leaktibai



WHATSAPP

+34 688 826 797



Youtube

@Leaktibai



Web

www.leaktibai.eus

MENDEXAKO
UDALA



Karraspio hondartza, Mendexa

Email: leaktibai@gmail.com

Mendexa

ZIRKUITUAK

Yoko zirkuitua.

- Erreferentzizko adina: 4-8 urte.
- Altuera: 1,10-140 metro artean.
- Zirkuitua: 15 erronka [3 tirolina]

Zirkuitu laranja.

- Erreferentzizko adina: 6 urtetik aurrera [10 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,20 metro.
- Zirkuitua: 5 erronka [2 tirolina]

Demo zirkuitua.

- Erreferentzizko adina: 9 urtetik aurrera [14tik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,30 metro.
- Zirkuitua: 5 erronka [2 tirolina]

Zirkuitu berdea.

- Erreferentzizko adina: 9 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,40 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [5 tirolina]

Zirkuitu urdina.

- Erreferentzizko adina: 12 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 16 erronka [4 tirolina]

Zirkuitu gorria.

- Erreferentzizko adina: 15 urte [16 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 21 erronka [bost tirolina]

ESKAINZA BEREZIAK

Familian. 4 urtetik aurrerako umeak dituzten familientzako eskaintza. Eskaintza berezia 13 urtera arte eta hiru lagunetik gorako familientzat, guztientzako prezio berarekin.

Urtebetetze jaiek egiteko aukera.

Ume, gazte zein nagusien urtebetetze egun bereziak ospatzeko eskaintza.

Opari txartelak. Naturagaz gozatzeko opari originala.

Ezkondur aurreko agur jaiek. Agur jai originalak naturan barneratuta.

Gazte taldeak. Gazte taldeen- tzako abentura, udaleku edota kanpaldientzat osagarri aproposa.

Ikasle taldeak. Formakuntza eta aisialdia eskutik: abentura naturan, tirolinak, tibeteko zubiak, rokodromoak...

KONTAKTUA

Helbidea:

Leagi auzoa (Mendexa)

Telefono zenbakia: **688 85 62 83**

Posta elektronikoa:

info@mendexpark.com

Webgunea:

www.mendexpark.com



Abenturarik zirrargarriena

Zuzenean naturarekin lotutako eskaintza zabala dauka Mendexak. Bizkaiko ekialdean kokatuta, mendiaz zein itsasoaz gozatzeko aukera ematen du.

Herrigunea (Zelaia auzoa) mendi tontorrean dago; Likoa, Leagi eta Iturreta auzoetan baserri eder ugari aurki daitezke. Handik gertu, Lea ibaiaren albo batean, Karraspio hondartza dago; lasai egoteko zein itsasoko jarduerak egiteko leku aproposa; surfa, esaterako.

Itsasotik aldentuta, abentura bete-betean bizitzeko natur ingurunea dago: Mendexa Abentura Park. Abenturazaleek 70 erronkatik gora egin ditzakete leku ireki eta guztiz seguruan. Iaz, **Zirkuitu laranja** ireki zuten, taldeak banatuago atenditzeko eta txikienei aukera berri bat izan dezaten.

Parkea adin guztiei zuzenduta dago, eta mahaiaik eta berdegune zabalak ditu, lagun zein familia artean lasai egoteko.



MENDEXAKO UDALA

Zelaia auzoa, 1

94-684 21 06

idazkaritza.mendexa@bizkaia.org

www.mendexa.net

Ispaster



Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga

Itsasoa, basoa eta mendia Ispasterko gauzarik esanguratsuenak dira Jesus Lekerikabeaskoa Arrillagarentzat; ezinbestekoak, herria osotasunean ulertzeko. Eta hirurak Otoioko begiralekuak uztartzen ditu bere ustez.

Artadi batetik heltzen da Otoioko mendiko buzoia-
ren atzeko aldera, hango begiralekura. Ezkutuan gelditu arren, txoko horrek asko dauka erakusteko Ispasterko alkate ohia-
rentzat. Ezkerrera begiratu, eta Ogoño eta Matxitxako ikusten dira; eskumata-
ra, Gipuzkoako kosta guztia; eta behean, itsasoa: 350 metroko jauzi bertikala. «Puntu zehatz horrek lotzen du hori dena. Leku gutxi egongo dira horre-
lako ezaugarriekin», nabarmendu du.

Itsasodun herria

Herriaren alde ez horren ageriko horretaz jabetzera gonbidatu du Lekerikabeaskoak. «Kanpotik dato-
zenek ez gaituzte lotzen kostarekin. Askok ez daki-
te ezta itsasorik daukagunik ere. Susmorik ere ez
dute edukitzen hondartzarik edo haitzarik dauka-
gunik», adierazi du.

Bertokoek ondo ezagutzen dituzte parajeok, bai-
na onartzen du pandemian sartuta, herriko eremu-
ra mugatu beharra egon zen garaian, jendeak
gehiago gozatu zituela. Berak asteburuetan ingu-
ruotan pasealdia egiteko ohitura dauka. Talaia-
tik



**Jesus
Lekerikabeaskoa
Arrillaga**
(Bizkaiko BBNNetako
Eusko Abertzaleak
taldeko bozeramailea)

**«Otoioko begiralekua
da nire lekuri-
kuttunena, herriko
esanguratsuen»**

Otoioko tontorrera igo, eta handik Ispasterko Elei-
zaldera jaisten da. «Ordu eta erdiko ibilbidea da; be-
rezia eta erraza; edonork egiteko modukoa». Hori
bai, bidean Otoioko begiralekuan geldialdia egin
eta paisaiatzat bat egiteko tarte hartuta.



**ISPASTERKO
UDALA**

Elejalde auzoa, 9-1.
94-684 40 25/ 94-684 29 99
faxa: 94-624 34 70
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus

Itsasargiko lasaitasuna



Lore Bengoetxea | bazeta



Ana
Goitia Erkiaga
(Kazetaria)

**«Faro parean,
lasaitasuna bilatzen dut;
eta portuan, herriaren
esentzia»**

Marinelak lehorrarekin lotzen zituen itsasargiak berak elkartzen du Ana Goitia itsasoarekin. Santa Katalina faroaren atzeko zelaia bilatzen du kazetariak lasaitasuna behar duenean. Hango ikuspegia; hango kresal usaina.

«Lekeitio itsasoa alde guztietan dago, ezta?», onartzen du Goitiak, baina itsasoa itsasoago-edo inguruotan. «Asko gustatzen zait; hori bai: jenderik ez dagoenean. Bai faroaren pare hori, bai atzeko zelaia; ze handik kosta guztia ikusten da, nahi Bizkaia aldera, nahi Gipuzkoa aldera. Horixe da nire

lasaitasun tokia. Asko maite dut. Eta oraindik eta erakargarriagoa da iluntzetan. Eguzkia sartzen ikusten da. Ikuskizun ederra!».

Kresalaren bidetik

Kresal usaina darie bazterroi, portu inguruari bezala. Goitiaren gogoko lekua hura ere. Batean baretasuna nahi duen eran nahi du bizitasuna bestean. «Faro parean, inor ez dagoelarik, patxada bilatzen dut; eta portuan, jendea batzen denez, herriaren esentzia. Eta nik bietatik behar izaten dut», esan du kazetariak.

Gurasoekin eta aitona-amonekin lotzen ditu portuak. «Arrasaten bizi izan nintzenean, Lekeitio-ra etortzen nintzenean, lehenengo portura joan behar izaten nintzen. Eta oraintsuago, pandemia garaian, etxetik irteteko aukera izan nuenean ere lehenengo osterara haraxe egin nuen, gurasoen etxe azpira, haiek eskuakin agurtzera; haraxe, eta faro-ra», gogoratu du.



lekeitioturismo.eus

TURISMO BULEGOA

Independentzia enparantza • 94-684 40 17
turismo@lekeitio.eus

Mutriku



Futbolari esker ezagun bihurtu da Asier Illarramendi Realeko kapitaina. Hainbat leku eza-gutu ditu, baina argi du zein den herriko bere txokorik gogokoena: Santa Bata. Hurbil bizi da, eta *Nala* txakurrarekin otera asko egiten ditu bertara. «Nahikoa txoko lasaia da. Pasealekuaren amaieran harrizko jarleku batzuk daude, eta hantxe lasai egoten naiz. Denok behar izaten ditugu geure gauzetan pentsatzeko momentuak, eta Santa Batako begiratokia horretarako aproposa da».

Herrigunetik 600 bat metrotara, zazpi hondar-tzetako baten gainean eta Santa Agata ermita zenaren hondarren parean dago Santa Bata. Itsasoaren eta mendiaren arteko kontrastea da paisaia horretako egiazko protagonista, eta lekuak eskaintzen dituen ikuspegi zoragarriak azpimarratu nahi izan ditu Illarramendik. «Kokapen berezia eta pribilegiatua dauka itsasora irekia. Zerua garbi dagoenean, talaia ezin hobea da Mutrikuko badia eta Gipuzkoako kostaldea bere osotasunean miresteke».

Santa Bata aldera autoz ere heldu daiteke, baina bertaratzeko erarik «politena eta ikusgarriena» oinez dela nabarmendu du. Herrigunetik hamar minutu eskaseko ibilaldi labur baten bidez iristen da bertara. San Nikolas ermitaren paretik doan bidea jarraituta, bisitaria galtzeko arriskurik gabe iritsiko da Santa Batara. «Oinez etortzeak gehiago merezi



Asier Illarramendi
[futbol jokalaria]

«Kokapen berezia eta pribilegiatua dauka itsasora irekia»

duela uste dut. Bidea oso polita da, erraz egitekoa». Txangoa osatzeko, Mutriku inguratzen duten mendi ibilbide bat egitea, Mutriku eta Deba batzen dituen pasealekuan oinez egitea edota Mutrikuko Turismo Bulegoak eskaintzen dituen bisita gidatu horietako bat egitea gomendatu du.



TURISMO BULEGOA:
Txurruka Plaza, z/g · 943-60 33 78
turismo@mutriku.net
www.mutriku.eus

Artibai erreken itsasoratzea



Artibai erreken itsasoratzea

Errekaren ertzetatik

Itsasorako bidean, Artibai ibaiak Ondarroa zeharkatzen du goitik behera. Azken txanpa horretan, erreka alboan pasaleku ere bihurtzen da, haren sigisagak gidatuta. Natura bera bidelagun izango du ibiltariak neke gabeko joanean.

1. Erreterria

Historian atzera egin behar da Erreterria auzoaren garrantziaz jabetzeko. Orain lasai ageri diren inguruok pisu esanguratsua izan zuten herriaren garapenean, lehen ibaiaren ibilbidea ez zelako egungoaren bezalakoa, baizik eta askoz emari handiagokoa. Herria sortu zenean, alegia, XIV. mendean, Erreterria auzoan ontziolak ezarri ziren, gerra zein merkataritzarako itsasontziak eraikitzearen. Gainera, azpimarragarria da Ondarroako portuko Erriberan eraikitako itsasontzien kalitate tekniko oso prezia-tua zela sasoi hartan.

2. Alleriko padura

Artibai ibaiaren bokalean, Alleriko padura daude, 80 hegazti espezie ingururen babesleku. Izan ere, Alleri, Ibaiondo eta Zaldupe



artean, hegabereak, birigarroak, enarak eta antxeta mokogorriak ikusteko aukera egon daiteke. Azken batean, Alleri euskal paduretako hainbat landare eta animalia bereizgarri iraunarazten eta gordetzen ditu. Landareei dagokienez, Aster tripolium, Juncus maritimus edo Elymus pycnathus aurki daitezke, baita Salicornia obscura ere; landare bitxia, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako lurraldeak kontuan hartuta Txingudiko paduretan baino ez da-eta ikusten. Zentzu horretan, naturzaleek gogoratzen dute kostaldeko hezeguneak itsas organismo askoren errute, hazkunde eta elikadurarako lekuak direla.

3. Aisialdia

Erreterria auzotik erreka gidatuta etorri denari erakargarri suertatuko zaio beste ertzeko giroa ere. Aisialdiaz atsegin hartzeko era bat baino gehiago egonik, tabernetako terrazen zurrumbiloan murgiltzea ere bada aukera. Horretarako eskaintza ugaria da herri guztian, eta ñabardura bizikoa ertzotan. Euskararen txipristinean, bilatu aitzakia bertokoekin ha-

rremandu eta herriaz gehiago jakiteko. Izaera irekikoak izanik, ondarrutarrak prest azalduko zaizkio bisitariari beharrezko informazioa emateko.

4. Uretako jarduerak

Herrigunera hurreratu ahala, erreka uraren marmarrean nahasten da pertsona. Ez daukate alferrik kirol portuaren eremuan bertan egoitza, bai Eskilantxarri ur kirol elkarteak, bai Ondarroa Arraun Elkarteak. Hori dela eta, bizi-bizi ageri dira bazterroko urte guztian, orduan eta gehiago udaberritik aurrera, eta batzuen eta besteen irteerak eta entrenamenduak ikuskizun eta gozatu ederra bilakatu ohi dira erreka albotik doazenentzat.

5. Zubiak

Zubi Zaharrak, erreka bi aldean aktibitate biziaren lekuko isil eta milaka iruditan harrapatua, leku berezia dauka ondarrutarren bihotzetan, arbasoen lotzen dituelako neurri batean —hantxe zegoen lehen arrantzaleen portua—, eta elementu arkitektoniko bisitatuenetakoa da urterik urte —berari itsatsita dagoen Kofradia Zaharrarekin batera—. Dena dela, beste zubi batek dauka Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare izendapena: Plaiko Zubiak. Handik arra betera, Itsasaurreko Zubiak —Santiago Calatrava arkitektoaren lehen zubia Bizkai, Araba eta

HAINBAT JAKINGARRI

- Ondarroak 1327ko irailaren 28an lortu zuen Hiribildu izendapena.
- Herria Artibai ibaiaren emariari jarraiki sortu eta hedatu da.
- Alleriko padura Natura 2000 Sarean dago, bere balioaren erakusle.
- Erreteriatik Saturraranerako ibilaldian, zebra bide bakarra gurutzatu behar da.
- Erreteriatik Itsasaurrera bitartean, zazpi zubi daude.



Gipuzkoan— izenean du ezagun bisitaria etaparen azkenera heltzen ari dela.

6. Arrigorri hondartza eta itsasoa

Geza eta gazia elkartu eta nahasi dira zubion azpitik pasatzen diren urotan. Haizeak kresala dakar. Hurbil da itsasoa. Eta berarekin batera, Arrigorri hondartza; eguzki, argi eta bainuzaleentzat toki aproposa eta babestua kai-muturrari esker. Nahi izanez gero, ibilbidean aurrera egin daiteke, orain erreka ordez itsaso zabala bistan eta bidelagun delarik, eta urratsa Mutrikuko Saturrarán hondartzaraino luzatu, Gipuzkoako lurretan.

ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA

Erribera, 9 - Kofradia Zaharra
94-683 19 51
turismobulegoa@ondarroa.eus
www.ondarroa.eus
www.udalbarriak.eus

Forua

Aztarna erromatarak



San Kristobal



Forua: historia eta kultura

Historia, kultura, artea, natura... herri txikia bada ere, ondarez betetako herria da Forua. Herrigunea zein auzoak ondarearen gordeleku dira.

Elexalden bertan, muinoan kokatuta dago Kristo ondoko I. mendean sortu zen sei hektareako herrixka erromatarra; V. mendera arte izan zituen biztanleak. Bizkaian dagoen erromatarren aztarnategirik garrantzitsuen da. Azken hamarkadetan egindako indusketa eta zaharberritze lanei esker, behar bezala dokumentatu eta balioetsi ahal izan da.

Iaztik, gainera, lekuan lekuko azalpenak dituen ohiko bisita ereduari tablet bidezko sistema gehitu dio Bizkaiko Foru Aldundiak. Errealitate birtualaren bidez, kastroa, bere jatorrian, nolakoa zen ikusi daiteke. Egungo kastroaren aireko bideoekin, inguratzen duen lurraldea ulertzen laguntzen du; gainera, orduko herritarren etxebizitza baten baretako berreraikuntza ezagutu daiteke. Modu horretan, berreraikitze birtualari esker, bisitariak gehiago gerturatzen dira Foruko historia eta kultura ondarrera.

Erromatarren herrixka edozeinen bistara bada ere, aldundiak bisita gidatuak antolatzen ditu udaldian. Bisita horien bitartez, aurrerantzean Foruko San Kristobal basiliza bisitatzeko aukera izango dute bisitariak.



Duela 2.000 urteko hiliarria

Elexaldetik paseo txiki bat emanez iritsi daiteke Arnotxerri auzoan dagoen San Kristobal basilizara; Foruko ondare historiko eta kulturalaren zati oso garrantzitsua dena. Herriko historiaren leku erreferentea da. Duela bi urte zaharberritze lanak egiten ari zirela, antzinako zibilizazioaren aztarnak aurkitu zituzten; horiek berreskuratu eta ikusgai daude gaur egun.

Erretaularen atzean ezkatututa dagoen leiho batean k. a. garaiko hareharrizko hiliarria aurkitu zuten, 80x35x18 zentimetro dituen. Bere aurrealdean eguzkia irudikatzen duen astro-disko bat ikus daiteke. Ertz batean bi gurutze paralelo ditu, eta horiek goiko erdialdean berdinak diren beste gurutze birekin gurutzatzen dira, perpendikularrean.

Elizaren ipar ekialdean, hormetan sartuta, erromatarren aurreko beste hiliarri bat agertu da. Ipar ekialdeko horman ere, lau angeluko harrizko bloke bat ere badago, ikusi daitekeen aldean zulo bat dauka, bere garaian erromatarren oparri edo al-dare izan zitekeena.



**FORUKO
UDALA**

Elelalde auzoa, 1.
94-625 51 16

idazkaritza.forua@bizkaia.org
www.forua.net

Kamiñoka

erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea
94-625 51 46 MURUETA
kaminokomotoxo.com



Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berriro jatetxeko ateak. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritzaren tradizionalean espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.

Ezagutu URDAIBAI gure bisita gidatuen bidez

Bisita
kulturalak
eta mendi
ibilaldiak
eskola, enpresa,
familia eta
kuadrillentzat

TOKIKO GIDA BATEN GARRANTZIA

Denok bisitatu dezakegu eskualde bat geure kabuz.

Nahikoa da Internet-en haren inguruko informazioa bilatzea.

TOKIKO GIDA baten laguntza badaukagu, oster, esperientzia guztiz desberdina izango da. Haren bitartez jabetuko gara benetan non gauden eta

zerk inguratzen gaituen, osotasunean;

hau da, naturaren edo arkitekturaren ikuspuntutik ezezik,

historiaren aldetik ere ezagutuko dugu bisita lekua.

Haren eskutik hurbilduko gara tokian tokiko benetako aztarnetara.

Gidek bisitariekin harreman zuzena daukate, eta turismoaren

eragile nagusienetakoak dira: ondarea transmititzen dute,

balioa eman eta interpretatzen lagundu.

Horregatik, URDAIBAI EXPERIENCE -en bidez gure eskualdea

benetan ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

Animatu eta ikasi gurekin batera!



i Iñigo Landa
@ @urdaibaixperience
+ +34 622 017 175
www.urdaibaixperience.com

Murueta

Upategia



Gana Palazioa



Ardoaren palazioa

Pedro Allendesalazar Zulueta-ren familia dorretxeak, XIX. mendean, upategi lanak egin zituen, eta Busturialdeko ekintzailetasunaren eredu bihurtu zen.

Gana dorretxea Muruetako Larrabe auzune inguruan kokatuta dago, Gampe errostatik hurbil. Antzinako Arrain eta Ardo Ibilbidean puntu esanguratsua izan zen. Palazioa muinotxo baten tontorean egoteak nagusitasun sentsazioa ematen dio, baina kokaleku horrek badu beste arrazoi bat ere: estrategikoa. Ganako palazioak XVIII. mendeko baserri eta dorretxe neoklasikoaren egitura du: fatxada simetrikoa eta egurrezko habea eta ateburua.

Gana dorretxean jaio zen Pedro Allendesalazar Zulueta. Petra Zulueta-ren eta Buenaventura Allendesalazarren semea izan zen; bere aita, hain zuzen, Ganako azken jauntxoa izan zen, maiorazgoak abolitu aurretik. Ganako dorretxea, besteak beste, tradizio militarren gordelekua izan zen, Allendesalazar Zulueta familiatik jaso baitzuen ohitura militarra. Marinar ibili zen, baita itsasontziko teniente izatera heldu ere.

Dena dela, Allendesalazar Zulueta-ren bizitzako pasadizorik aipagarriena Amorebietako Itunean gertatu zen: karlistek eta liberelek adostutakoa hautsiz, Carlos Maria Isidro infantearen alde aritu zen. Halaber, Gernika batailoia-ren sortzailea izan zen. Bere familiako karlista bakarra izan zen, eta horrek zenbait urtez erbestean bizi beharra ekarri zion.

Jaiotetxera itzulera

Bigarren karlistaldiaren ostean, atzerrian bidaia-tzen ibili zen hainbat urtez, eta Gana palaziora, bere jaiotetxera itzuli zenean, eraikinari bigarren bizitza eman zion: upategi itxura hartu zuen. Allendesalazar Zulueta ekintzailea izan zen: inguruko baserri, orube eta mendien ugazaba.

Baina, horren gainetik, ardoaren ustiapenerako baliatu zuen eraikina; hain zuzen ere, Frantziako Champagnetik adituak ekarri zituen, eta bere ardo negozioa abiatu zuen Ganako upategiaren inguruan: Muruetan zein Busturian. Horretarako, bere dorretxe alboan bigarren eraikin bat altxatu zuen, ardoaren ustiapenera bideratuta. Horrez gain, Muruetako Udalean ostra haztegi bat sortzeko proiektua ere aurkeztu zuen.

Allendesalazar Zulueta XIX. mendearen amaieran Bizkaia izandako itxuraldatze politiko, sozial eta ekonomikoaren aitzindarietako bat izan zen, eta Gana dorretxea, oster, bere ekintzailetasunaren erdigunea. 1919ko maiatzaren 23an zendu zen, Begoñan (Bilbo), eta, jarraian, Gernika-Lumoko Zallo hilerrian ehortzi zuten.



**MURUETAKO
UDALA**

Kanpantxua, 3
94-625 24 51
udala.murueta@bizkaia.org
www.murueta.eus

Zatoz Gernikako Bakearen Museora!

Bakeaz, Giza Eskubideetaz eta Gernikako bonbardaketaz arituko gara. Bizirik irten zirenek beraien bizipenak kontatuko dizkigute. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa.



Apirilaren 4tik urriaren 16ra

Astelehenak eta igandeak: 10:00-15:00

Asteartetik-larunbatera: 10:00-19:00



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Foru plaza,1. Gernika-Lumo
94 627 02 13 / museoa@gernika-lumo.net
www.museodelapaz.org

Gaategiz Arteaga

Artadia eta padura



Gaategiz Arteagako muga naturalak



Gaategiz Arteagan, erdiguneak, itsasoko eta mendiko paisaiaren arteko banaketa ezin hobe egiten du. Herriko paisaiak, tonalitateak eta izaera ezagutzeko, elkarrekin lotutako pasealeku ederretan barrena murgildu behar da.

Alde batera, **padura**. Paisaia irekia, lasaia eta intimista da, eta isiltasuna hegaztien kantuarekin eta Urdaibaiko estuarioaren ezkerraldea zeharkatzen duen trenaren triki-takarekin hausten da. Munak, jakinduriak eraikitako harrizko eta buztinezko antzinako dikeen egiturak, bertoko ondare bitxiak dira. Larreetarako eremu erdilehorrak sortzen lagundu zuten. Giza erabileraren eta ingurunearekiko errespetuaren arteko elkarbizitzaren adibide hau Ozollo auzoan aurki dezakezu.

Erdigunearen beste aldean, paisaia aldatu egiten da. Zuhaitz indartsu eta sendo sustraitutako baso korapilatsua, **Artadi Kantauriarra**. Zeruertz honetan murgiltzea, Ereñozarren babespean, Olalde

errekaen marmarrean gozatzea da, eta bere ertzean, bidexka batek antzinako errota erakusten dizkizu.

Ibarrangelurekin muga egiten du **Zendokiz landa-auzoak**, txikia eta tradizio handikoa. Ingurune baketsu honetan, non denborak atsedean hartzen duela dirudien, natura pizten da, kimu bat hazi da «ehun urteko haritz» baten enbor lehorretik. Inguruan dauden harriak, zirkulu magiko gisa, *crómlech* erako zuhaitza izan leikela iradokitzen dute. Bere ondoan, Karmengo Andra Mariaren ermita eraiki zen, itsasgizonen babeslea.

GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA



Herriko Enparantza, 1

94-627 52 27

faxa: 94-625 29 53

udala@gategizarteaga.eus

www.turismogaategizarteaga.eus



Regulador
Bizkaiko Txakolina
de Origen

AMUNATEGI TXAKOLINA

1812 urteaz geroztik



17.000 metro
karratutako
mahastia
Busturiko
San Bartolome
auzoan.



GURE TXAKOLINA:
kolore hori disdiratsua,
usain bizikoa, freskoa
eta fruitu berdeen notekin.
• **Zuzeneko salmenta:**
3 eta 12 botilako kutxetan.



**Txakolina dastatzeko ordubeteko
BISITA GIDATUAK:**

- Helduentzako prezioa: 12 €
- Haurrentzako prezioa
(10 urtetik beherakoak): 2 €



Kontaktua: **685 73 73 98** (Anton)
anton.aranburu@gmail.com

www.amunategi.com

Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

**Oinez edo itsasontziz,
animatuko zara horiek aurkitzera?**

Oka ibaiaren estuarioaren ezkeraldekiko eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek **Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu.** Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Begiratu nahi al duzu?**



EKOBIIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaien baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hauzak eta zeozer
gehiago!

Nabarniz

Frontoiaren punpa hotsean



Aitor Etxebarria
(Pilotaria)

«Txikitan ordu asko ematen nituen frontoian; horixe da nire txoko kuttuna»

Nabarniz erdia bizi esnatzen da domekero. Frontoitik dator soinua. Han, Aitor Etxebarria pilotariak bihar-etziko kirolariak trebatzen ditu, bere kirol ibilbidea hasi zuen leku berean. Huraxe du, izan, herriko lekuri kuttunena.

«Txikitan orduak ematen nituen frontoian lagun artean pilotan», esan du Nabarnizkoak. Hura inauratu eta pilotan hastea, dena izan zen bat bereztat. 5 urte zeuzkan, eta bere sasoikoekin hasi zen narruzkoari eman eta eman. Gaztea izanagatik — 25 urte dauzka — pilotaleku ugari ezagutzen ditu

Gernika Arkupe Pilota Taldearen baitan, eta gaur egun Gernikako Santanape du entrenatzeko toki, baina herriko harrobiari begirik kendu gabe jarraitzen du: hango belaunaldiak ontzen. «Orain gutxiago joaten naizen arren, niretzat herriko tokirik esanguratsuena izaten jarraitzen du», adierazi du.

Punpaz punpa, herria eginez

Etxebarriak belaunaldi gazteenekin egindako lanaren uztza ikusteko aukera egoten da Andra Mari jaietako erakustaldian. Frontoia herriaren bilgune izaten da holakoetan, beste momentu batzuetan zaldi-probena izaten den modura.

Hango piloten punpa hotsen oihartzunak txikitako bizipenetara darama Etxebarria. Herriaren sustraiaren kimu berrienak dira, frontoia egin aurretik eta handik ez oso urrun elizako hormetan pilota gozatuaz zailtzen zirenen ondorengoenak. Guztiak aspaldikoagoek bezala pilota gozatuaz denboraz ere gozatzea bilatzen dutenak.




NABARNIZKO UDALA

Elxalde auzoa, 14
94-625 50 77
udala.nabarniz@bizkaia.org
www.nabarniz.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

ZURE ZAIN GAITUZU



Mundakako
itsasadarraren
bihotzean



EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta
masaje terapia



LORATEGIA

Lorategi zoragarria
itsasora begira



NATURA

Naturazaleentzat
ihesaldia egiteko
toki paregabea



inspiratu zaitez



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19
48317 Sukarrieta – Bizkaia
(sarbidea, Gautegiz Arteagatik)

<https://casarural-kanala.com/>

casaruralkanala@gmail.com

666 68 08 01 / 618 77 43 98



Mendietako plaza



Aitor Albizu
[Herritarra]

«Behatokia da Ajangizek daukan altxorrik handiena»

Belaunaldi desberdinak batzen dituen lekua da Ajangizko elizaldea edota Mendietako plaza: «Herritarren bilgunea». Herritarren jolaslekua eta gazte eta helduen arteko hartu-emanak sustatzeko lekua da, eta bizitza osoa igaro du han Aitor Albizuk: «Dena daukagu gune eder horretan: liburutegia, plaza, frontoi berria, zaharra eta sekulako behatokia. Urdaibaiko bihotzean gaude, eta ikuspegi zabala izatearen zortea daukagu».

Plazak herriari «nortasuna» ematen diola dio Albizuk, leku segurua eta abegikorra delako. Plazaren proiektzioa ere «ederra» dela uste du, bailara ikusteko begiratoki zabala bezain lasaia duelako: «Ibarre-ra begiratzeko begiratokia izugarria da. Leku epela da, eguzkitsua, eta dituen arratsaldeak sekulakoak dira. Zerua gorritzen diren iluntzeak ikustekoak izaten dira». Badauka bere berezitasuna. Bizkargi

eta Kosnoaga ditu aurrean, eta Gernika-Lumo osorik ikusteko aukera eskaitzen du. Tartean, zuhaitzez betetako landa zabala dago: «Lehen ortuak zeuden, eta, orain, berezko beste paisaia bat sortu da. Horrek ere bere xarma dauka».

Lasaitasuna transmititzen duen parajea da, ez-kutuan dagoena. «Behatokia da Ajangizek daukan altxorrik handiena. Paisaia lasai ikustek ere norbera ezagutzeko aukera ematen du. Zoragarria da». Izan ere, inguruko herrietako gazte eta heldu asko hurbiltzen dira iluntzeak plazan igarotzera.

Frontoi berria eta zaharra

Leku berezia da Albizurentzako elizaldea. Pilota gustuko du, eta, parajeaz gain, frontoi zaharraz eta berriaz gozatzeko aukera ere badauka. Hain zuzen ere, horma bakarrean uztailean egiten den txapelketaren antolatzailea da, baita frontoi berrian apilaren amaieran hasten denarena ere: «Gazteei pilotan lehiatzeko aukera eskaintzen diegu plazan. Frontoi berrian, berri, afizionatu mailako profesionalak lehiatzen dute». Pilotari bultzada ematea da euren asmoa, eta horretan jarraituko dute.



**AJANGIZKO
UDALA**

Mendietako auzoa

94-625 19 13

idazkaria.ajangiz@bizkaia.org

www.ajangiz.eus

Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA



Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954



ARROLAKO GUNEA

IGANDE GUZTIETAN
10:00-14:00
ARRATZU



Sarrera doan

ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA

Visit
Urdaibai

Bizkaia

ARRATZU

Bide-gorri sarea



Etorri, probatu eta geratu

Aisialdi osasungarria eta jasangarria maite dutenentzat udalerri aproposa da Arratzu, txikia bezain xarmangarria, lasaia bezain aberatsa. Natura, kirola, paisaia, historia, ondarea... dituzu aukeran Arratzun. Ez dizu hutsik egingo.

Arrolako herrixka gotortuak erakarrita iristen dira asko bertara, baina udalerriak beste hamaika altxor biltzen ditu. Landa-izaera, paisaia naturala eta ondare historikoa eta kulturala uztartzen ditu, eta, esaterako, Urdaibain aitzindaria izan da mugikortasun jasangarria sustatzen bidegorri-sarearen bidez. Horrek auzoak lotzen ditu, eta aurtan herri guztia lotuta geratuko da ibilbide berriari esker. Loiola auzoa eta Belendizko bide gorriaren arteko lotura egin dute, eta horrela, pare bat kilometroko bidea gehitu zaio sareari. Baina, ibilbidearen parte bat, mendiko tartea egokitzea falta zaie, eta udarako prest egotea aurreikusi dute.

Gernikaraino heltzen da bide-gorri sarea, eta urte guztian askok erabiltzen dute oinez zein bizikletaz bertatik igarotzeko, eta, gainera, Barrutia herri ikastetxera zein Barrutialde instituturaino joateko aukera ere eskaitzen du.

Donejakue Bidea egiten dabiltzanak ere bide gorritik heltzen dira Gernika-Lumora. Izan ere, Markina-Xemein eta Gernika-Lumo arteko etaparen zati txiki bat egin dezakezu Arratzun. Erdi

Aroz geroztik daukate bidearekin lotura, milaka erromes ibiltzen ziren garaietatik. Arratzun zigilua lortu dezakete erromesek. Halaber, ibilbide turistiko naturala, kulturala eta ekologikoa da Arotz ibilbidea, egurraren ibilbide turistikoa, eta Golako ibaiaren bideari jarraitzen dion Arratzu eta Mendata arteko PR BI-167 ibilbide laburra egitea ere plan bikaina da. Erraz egin daitekeen bost bat kilometroko ibilbidea da, interes natural, kultural eta paisajistikoa handikoa. Ibaiertzeko basoaren aberastasun naturalaz gozatzeko, Santo Tomas eliza monumentalak ikusteko edota Artzubiko zubi magikoa igarotzeko aitzakia ederra da.

Giro apartean, indarrak berreskuratzeko proposamen gastronomikorik ez da falta. Arratzun etxean bezala jan dezakezu. Sasoian sasoiko produktuekin egindako platerak dastatuko dituzu Olesko Tabernan zein Herriko Tabernan. Naturak eta gastronomiak utzitako aho-zapore gozoagaz irtingo zara, beraz, Arratzutik. Bueltatuko zara, seguruki!



ARRATZUKO UDALA

Loiola auzoa, 2
94-625 68 84
udala.arratzu@bizkaia.org
www.arratzu.eus
www.turismoarratzu.eus

NÖVEREK



NÖVEREKen edozein motatako ekitaldiak antolatzeko, diseinatzeko eta kudeatzeko zerbitzu integrala eskaintzen dugu. Gure helburua ekitaldi bakoitza pertsonalizatzea da, gustu ona eta xehetasunak zainduz. Horretarako, arlo desberdinetako profesionalak ditugu, etengabe berritzen ari direnak, beraien tresnak eskura jartzen dituztenak, beti onena emanez, gure bezeroen ekitaldiak arrakastatsuak izateaz bermatuz.

Zure ideia kontaguztu eta elkarrekin plan eksklusibo bat sortuko dugu. Zure nortasuna, gustua eta aurrekontua kontuan izanik.

Nortzuk gara?

Gernikako hiru neba-arrebek sortu genduen Növerek, Yaiza, Ania eta Aser Cid Foruriak. Baina Növerek familia handitzen joan da azkenengo urtean. Ainhoa Oar ekintzailea, Mili Choque Peruko sukaldaria eta Vito Cacciapaglia Italiako sukaldaria ere gehitu dira.



Bekoibarra, 13 - 2.3
Gernika-Lumo
· 656 76 62 98
· 677 83 25 57
www.noverek.es

BISITA MOTAK

Norbanakoak: Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaiotzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen joango da gidaria.

Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia (irailaren 1etik ekainaren 30era):

Asteleheneretik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara [15:00etan irteteko]. Larunbat, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 [18:00etan irteteko].

Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra):

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara [19:00etan irteteko].

PREZIOAK

Norbanakoak:

Helduak 9 euro eta umeak 5.

Taldeak: Bisita gidatueta-rako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gidaria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



Basondo, basofaunaren babesleku

Basurdeak, orkatzak, oreinak, azeriak, basakatuak... Inguruko animalia ezagunak zein gaur egun Euskal Herrian desagertuta daudenak biltzen dira Basondon. Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue antzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Ez da zoologiko bat, Basafaunaren babesleku bat baizik. Animalia gehienak Berreskuratze Zentroetatik etorritakoak dira. Ia denek sendaezinak diren kalte batzuk dituzte eta, beraz, ezinezkoa da naturara berriro birsartzea.

Horrez guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere egiten dituzte.

Animaliez eta naturaz gozatzeko leku aproposa da faunaren aterpe hau. Bisitariei animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen diete eta, esaterako, bisitetan taldekideen adinaren arabera naturari buruzko azalpenak ematen dituzte.



BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi

94-625 44 36

info@basondo.com

www.basondo.com



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo [Bizkaia]
94-625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs

EUSKAL SOUVENIRS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*



CIE: 2260
Fray Martin de Murua, 29
GERNIKA-LUMO
94-625 74 14 • 688 68 63 45
auka@auka.eu





urdaibai

Turismo aktiboa eta abentura



Coasteering



Kanoa/Kayak

www.urdaibai.com
info@urdaibai.com



94 627 66 61 / 688 635 190



SUP - Stand Up Paddle